

*Ibon Sarasola:
Filologia zertarako eta nola*

Blanca Urgell
(UPV/EHU)

Ibon Sarasola, Gorazarre

Donostia, Carlos Santamaria, UPV/EHU
2015eko martxoaren 13an

Ibon irakasle izan nuen karrerako lehen urtetik, gau-eskoletan hiruzpalau urte egin ondoren Euskal Filologia egitera alaiki ausartu nintzenez gero, eta Iboni ahuntzerdara harrigarri batean —ahuntzeuskara esan beharko nuke, agian— *erromatarrak...*, *erromatarrak...*, *erromatarrak...* besterik ulertzen ez nion hasierako eskola beldurgarri hartatik.

Ez dakit zerk harritu ninduen gehiago: AEKko irakaslearen euskararekin antzik ere ez zuen Ibonen euskara hark, edo monja kolegio batetik atera berritan aurrean neukan irakasle hippy, bibotedun eta zuekodunak.

Oraindik nor-nori-nork osoa menderatzen ez nuen eta nor-nori hirugarren pertsonatik gora usaitu ere egiten ez nuen garai hartan, berarekin ikasi nuen, hika ez dela *hi haiz* eta *hik duk/dun*, baizik eta sistema alokutibo oso bat. Berak euskaldundu zituen nire belarriak. Berarekin irakurri —eta analizatu— genituen gure lehendabiziko testu zaharrak. Ondo gogoan dut azterketan Azpeitiako gutunak jausi zirela. Eta zer-nolako estuasunak izan ziren nireak ohartu nintzenez, sinistu ezinik, erdal hiztegiek ez bezala, Ibonek gomendatutako Azkueren hiztegiak ez zituela jasotzen Jean Etxeparek *Berebitez*-en erabiltzen zituen hitz guztiak, ezta erdiak ere, egia esanda.

Ibon izan nuen tesinako zuzendari: berea da Añibarroz zaletu izanaren errua, *Esku-liburua*-ren lehen bi edizioak elkarrekin erkatzen aritua baitzen, eskuz egindako paperezko fitxetan, eta bazekielako hantxe bazela gairik nahikoa.

Ibon zuzendari izan nuen baita *Orotariko Euskal Hiztegia*-n ere bederatzi urtez, agian nire bizitza osoan euskarari buruz eta euskararen historiari buruz batz bestea gehien ikasi dudana garaian. Eta tartean hamaika kontu gehiago izan dira elkarren artean. Hainbeste non (adinagatik ez badagokio ere) filologia munduan Ibon nire gurasoa izan dela esan baitezaket ozenki.

Gurasoak batzuetan errietan ematen dizu, bestetan ez duzu ulertzen zertan ari den, baina urteak aurrera joan ahala ezustean zeure burua harrapatzen duzu gurasoak egiten dituen keinu berak egiten, haren portaera ulergaitzak errepikatzen eta hark esaten dituen gauza berak ondokoei esaten. Nik neure burua hamaika aldiz harrapatu dut Ibonen bi esaldi gogoangarri ikasleei errepikatzen. Biak ala biak euskara ederrean, ez dakit Donostiakoan ala Urola aldekoan.

Horra hor lehena: *Lo mejor es enemigo de lo bueno*. Eta bigarrena: *Haga usted lo que pueda*. Bi perpaus hauetan laburbiltzen da Ibonek, erromatarrak, alokutiboak eta testu zaharrez gainera, filologian erakutsi didan garrantzizkoena.

Lehena batez ere ulergaitza zen niretzat. Gogoan dut behin baino gehiagotan aritu nintzela gaztetan nire artean zer hautatu behar ote zen: *ona* ala *onena*. Ibonek noiz erabiltzen zuen eta hori banuen argi. *Onena* egingaitza zenean, eta batez ere luzeeeee, Ibonek beti bilatuko zuen zeharbideren bat oztopoa gaindituko edo alde batera utziko zuena.

Ez dut beste inor ezagutzen fotokopia bat egiten zenbat segundu ematen den dakienik, edota laburdurak egiteko teknikari halako garrantzia ematen dionik. Ibonek filologian aritu baino lehenago ingeniartzat egin izanari egozten dio bere joera hori, baina izaera kontua ere bada, nik uste, edo agian izaera kontua batez ere.

Zirt edo zart egin behar denean, Ibonek beti *zirt* erabakiko, segituan, *zart*-en abantailez gogoeta egiten denbora gehiegi galdu gabe. *Lo mejor es enemigo de lo bueno*. Nondik aterako esaldi hau, eta Voltaire-gandik. Bai, bai, Ibonek itzuli zuen *Kandido*-ren egile berarengandik. Gero ikasi dut Harold Demsetz ekonomialariak XX. mendean *Nirvanaren iruzurra* izena eman ziola Voltaire-k ederki laburbildu zuen gogoeta horren azpian datzan jokabideari, alegia, ustezko perfekziotik aukera errealista guztiak zapuztu nahi dituenaren jokabideari.

Hauxe da Ibonen lanen oinarria: *nola* egin behar den lan eta honetaz gogoeta egiten behar den denbora hartzea, gero atzera-aurreretan denbora ez galtzeko, edota aurrera egin ezinik ez gelditzeko. Eta honetan ez da teorian mailan gelditu, baizik eta berak berez eta bere egitez frogatu du etengabe. *Orotariko Euskal Hiztegia* egiten hasi baino ez, eta berak *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* aurkezten hasi zen, atalka, antzinako nobelak eta gaurko telesailak bezala, *Orotarikoaren* corpusaren irakurketa azaleko batetik aterea. “Azalekoa” diot, eta ez bedi gaizki uler: orduko parametroetan erraldoia zen corpus hura di-da di-da laburbildu zuen, aldaeren artean hautatuz, adierak definituz eta ordenatuz, definizioak lehenengoz euskaraz emanez, adibide esanguratsuak aukeratuz, eta abar, eta abar, eta abar. Lan erraldoia berez. Zer zen *onena*? Deena aztertzea eta deena azaltzea. Zer izan zen *ona* Ibonen ustez, zer behar zuen orduko euskarak haren ustez? Corpus fidagarri batean oinarritutako hiztegi oso bat egitea, lexikoan dena beharrean zen euskara batuari alde honetatik ere euskarri emateko. *Nola*? Garrantzizkoena eginez, ahaleginean, eta *onena* gerokoen esku utziz.

Hauta-lanerako euskal hiztegi hura, gero *Euskal Hiztegia* bihurtuta, ikerketa historiko askoren ezinutzizko lanabesa izan da eta da gaur egun ere, txantxetan-benetan norbaitek asmatu eta Ibonek berak inoiz erreibindikatu duen *filologia industrialaren* bidetik egina izan arren.

Zergatik? Besteak beste denbora ederki eman baitzuen —bestetan alferrik galdu ez zuen denbora hura, hain zuzen— euskal hitzen lehen datazioak bilatzen hiztegi eta testuetan. *Haga usted lo que pueda*: gramatika kategoriak markatu arren, ez zen gelditu hitz baten kategoria zein zen ez zekienean —hobeto esanda, gramatikagileek oraindik zein kategoriatan sartu behar den erabakia ez dutenean—: ez du ezer jartzen, eta aurrera.

Ibonek *onena* bilatu izan balu, *onena* bilatzera animatu izan bagintu, edo are batzuetan *onena* bilatzea eragotzi izan ez baligu, nork daki *Orotarikoa* gaur bukatua izango ote zen? Zenbat horrelako hiztegi ez ote dira geldiarazi edo bertan behera utzi?

Egin behar dena *nola* egin behar den erakustez gainera, Ibonek *zer* egin behar den ere ederki erakutsi digu. *Zer* galdera horren erantzunak askotarikoak dira. *Zer?* hori izan daiteke aurrera egiteko ezinbestekoa dena, *Hauta-lanerako hiztegia*-rekin frogatu zuen bezala, edo bere tesitik hasita, orduan magma ezezagun xamar eta ezagugaitz bat osatzen zuten testu arkaiko txikiz eta testu puxkez osatutako corpus haren lexikoia eginez. Berriro ere lan beldurgarria berez, baina hasi eta buka burutzeko gauza izan zena, zirt edo zarteko erabaki latz batzuk harturik.

Baina *Zer?* ere bada gai onak aukeratzea eta ederki gauzatzea. Egun ere gainditu gabe dago, adibidez, posesiboen erabileraz 1980an argitaratu zuen lana. *ASJU*-n atera diren lanetan onenak hautatzeko edozein zerrendatan, nik betiere Ibonen 1986ko “Larramendiren eraginaz eta” artikulua sartuko nuke, hala edukiz nola hizkuntzaz.

Oroitzapenak. Iragana. Heldu diezaiozun orainari, ostera, eta Ibon aurrean dudala aprobetxa dezadan. Filologiaren aldetik zerbait egoztekotan, hauxe: hain dela hiztegi gintzan sartua ibili azken hogeitaka urteotan, non honelako beste lanei, bete-betean filologian edo euskararen historian sartuak direnei, tantaka baino ez baitie tarterik eman. Loriako hamar minutu hauek baliatuko ditut eskatzeko, arren, urtean behin bederen, pazko garaian balitz sikieran, denbora pixka bat eman diezaion egiteko honi.

Hamar minutuk ezin kabitu Iboni buruz esan behar nukeena. Hamar minutuk ezin kabitu neuk behintzat maisu eta ongile bezala zor diodana. Baina, berriro ere Voltairek esan zuenez, jendea aspertzeko sekretua deena esatea denez, honekin bukatuko dut:

Eskerrik asko, Ibon. Urte askotako.